



# ZERBITZU KARTA

2024

[EHME@EHME.EU](mailto:EHME@EHME.EU)

[WWW.EHME.EU](http://WWW.EHME.EU)

## Aurkezpena

Euskal Herriko Musika eta Dantza Eskolen Elkarteak **1994ko abenduan** jaio zen, Bere baitan **8 musika eskola** zituelarik.

Gaur egun, Euskal Erkidegoko udal finantziatutako **68 eskolak** osatzen dute .Elkarteak, bere barnean **24000 ikasle** baino gehiago egonik, Euskadiko udal hezkuntza musikala ez arautuaren buru eta eragile izatea ditu helburutzat.

UGure lan ildoetako bat, ikasleek egiten duten musika gure herrietan zein hirietan edukitzea, arautzen gaituen dekretuan esaten den bezala.

**Euskal Herriko Musika eta Dantza Eskolen Elkarteak**, bereganatzen du bere abiaburuen artean, garrantzi handikoa delakoan, elkarteak zabaltzeko eta gure lan ildoak aproposak direla ikusteko, itunak eta erlazioak beste antzeko izateekin hauetatik ikasiz.

Hauen artean, aipatu beharra daude:

- **Eusko Jaurlaritza**,
- **UEMYD**, Estatu Espagnolako Musika eta Dantza Eskolen Elkarte ezberdinak batzen dituen federazioa,
- **EMU, European Music School Union**, Europako Elkarteak batzen dituen erakundea.



## Misioa

Musika eta dantza hezkuntza eskaintzen duten gure musika eskolek animatzea eta dinamizatzea, pedagogikoki eraginkorrak diren musika eta dantza proiektu erakargarrien eta ekonomikoki bideragarrien bitartez, adin, genero, jatorri eta gaitasun ezberdinak dituztenentzat gure Euskadiko udalerrietan.

## Ikuspegia

Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Dantza Eskolen erreferentzia izatea antolatzen ditugun eta haiek ordezkatzuz parte hartzen dugun jardueretan. Horretarako, gure musika eta dantza eskola guztietako profesionalak izango ditugu, baita musikako eta dantzako kanpoko erakundeen eta profesionalen ekarpenak ere.

## Balioak

ERANTZUNKIZUNA

KONFIANTZA

PARTE-HARTZEA

ELKARLANA

BERRIKUNTZA

EKOLOGIA ETA GARAPEN IRAUNKORRA

# Zerbitzuen zerrenda

## 1. Aholkularitza, inforamzioa eta orientazioa



**EUSKADIKO MUSIKA ESKOLEN  
ELKARTEAREN PROPOSAMENA,  
ETORKIZUNEKO  
HEZKUNTZAREN EUSKAL  
LEGEAN SARTZEKO**

**PROPUESTA DE LA ASOCIACIÓN  
DE ESCUELAS DE MÚSICA DE  
EUSKADI PARA SU  
INCORPORACIÓN A LA FUTURA  
LEY VASCA DE EDUCACIÓN**

### Kalitate-konpromisoak

Bidaltzen zaizkigun kontsulta guztiei erantzun zuzena eta adeitsua ematea, gehienez 72 orduko epean.

**Erantzundako eskaeren %.**

## 2. ikaslegoarentzat jarduerak: Musikalean, Musikaldi, EMU Jaialdia eta beste batzuk



## Kalitate-konpromisoak

- Urtean behin egitea (azaroan, Santa Zezilia dela eta)
- Bi urtean behin egitea.
- Parte-hartzea erraztea (egiten den urtean)
- Beharrak ikusi

**Urtean zehar egindako ekintzen kopurua.**

### 3. Profesionalentzako jarduerak: Formakuntza plana, Jardunaldi pedagogikoak




## Kalitate-konpromisoak

- Urtero hainbat ikastaro egitea gure profesionalentzat, eta gutxienez 5etik 4ko batez besteko emaitza lortzea inkestetan.
- Bi urtetik behin (azaroan) egun bat antolatzea definitu beharreko gai batekin, eta 5etik 4ko gutxienerako emaitza lortzea inkestetan.
- Ikusi beharrak

**- Urtean egindako jardueren kopurua eta inkestean batez besteko balorazioa.**



## 4. Kanpo eta barne komunikazioa: Telefonoa eta posta elektronikoa, Zuzendarien bilerak, Batzar Nagusia, Web



### Kalitate-konpromisoak

- Kexa eta iradokizun guztiei gehienez 15 egun balioduneko epean erantzungo zaie.

- **Ezarritako epearen barruan ebatzitako kexen %**

## 5. Artxibo propioa



### Kalitate-konpromisoak

EHMEEn dauden partiturak bazkide guztien eskura jartzea.

- Erantzun gabeko eskaeren kopurua.

## 6. Harreman instituzionalak eta aliantzak izatea honako hauekin gutxienez: Eusko Jaurlaritza, UEMYD (Estatuko Elkarte), EMU (Europako Elkarte), SEM-EE (Nazioarteko Elkarte), Bestelakoak

### Kalitate-konpromisoak

- Behar beste aldiz biltzea, urtean behin gutxienez.
- Batzar Nagusira joatea, gutxienez
- Batzar Nagusira joatea, UEMYDko kide gisa dagokionean.
- Bazkide gisa jarraitzea eta beharrezkotzat jotzen diren topaketetara joatea.
- Indarrean dagoen akordioarekin jarraitzea, gure langileen baldintzak hobetzeko.
- Bilerak egingo dira une bakoitzean interesgarritzat jotzen diren erakunde eta entitate guztiekin, bai eta hitzarmen berriak, akordioak eta abar ere.

- urtean egindako bileren kopurua eta sinatutako hitzarmenei eustea.

## Bazkideen eskubideak eta betebeharrak

### Elkartutako eskola guztiek honako eskubide hauek dituzte:

- 1) Elkartearen Legearekin edo Estatutuekin bat ez datozen erabaki eta jokabideen aurka jotzeko eskubidea, egutegiko berrogei egunen buruan, aurkariak aurka egindako erabakiaren edukiaren berri jasoko zuen, edo jasotzeko aukera izango zuen, egunetik aurrera zenbatzen hasita.
- 2) Elkartearen gobernu-organoen eta ordezkaritza organoen osakeraren, bere kontuen egoeraren eta bere jardueraren garapenaren berri jasotzeko eskubidea.
- 3) Edozein unetan Elkarteko gainerako kideak zein diren jakiteko eskubidea, baita Elkartearen diru-sarrerara eta gastuetako kontuen egoera eta bere jardura nola doan jakitekoa ere, izaera

pertsonaleko datuen babeserako araudiak aurreikusten duenaren barnean.

- 4) Batzar Nagusietarako deialdia jasotzeko eskubidea, Batzar Nagusietara joateko eta bertan hitz egin eta botoa ematekoa; eta, horretarako, bere ordezkaritza beste kide batzuei eman diezaieke.
- 5) Estatutu hauekin bat etorriaz, Elkartearen zuzendaritza organoetan parte hartzeko eskubidea, kargu haietarako aldi berean hautesle eta hautagai izan daitezkeelarik.
- 6) Indarrean dagoen legeriak aurreikusten duen Kideen fitxategian jasota egotekoa eta Elkartearen ikurra erabiltzeko eskubidea.
- 7) Estatutuen ale bat edukitzekoa, baita Barne Araudiarena ere, eta zuzendaritza organoei eskaerak eta kexak aurkezteko eskubidea.
- 8) Diziplinako neurriak hartu aurretik, haiek hartzeko arrazoiak berri jasotzeko eskubidea eta bere iritzia idatziz ematekoa, neurriak hartzeko arrazoiak elkartekideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezkeelarik.

### **Musika Eskolen betebeharrak hurrengoak dira:**

- 1) Elkartearen xedeak bere egitea eta horiek lortzen laguntzea.
- 2) Estatutuen eta Batzarrak balio osoz hartutako erabakien arabera, elkartekide bakoitzari dagozkion kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
- 3) Estatutuetan xedatutakotik elkartekideari dagozkion gainerako betebeharrak betetzea.
- 4) Elkarteko gobernu-organoei balio osoz hartutako erabakiak ontzat hartzea eta betetzea.

## **Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak**

### **EHMEk antolatutako jardueren erabiltzaile guztien eskubideak:**

1. Izena eman aurretik, garatu beharreko jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
2. Osotasun fisiko, psikiko, moral eta duintasun pertsonalarekiko errespetua. Ezin izango da, inola ere, tratu iraingarri edo apalesgarririk eman, ezta tratu txar fisiko edo moralik dakarren zigorrik ere.
3. Egindako jarduerara joan izanaren ziurtagiria.
4. Era guztietako ekimenak, iradokizunak eta erreklamazioak egitea posta elektronikoaren bidez edo telefonoz.
5. Ezarritako ordutegia errespetatzea eta, jarduera eten edo aldatzen bada, ahalik eta lasterren jakinaraztea.

## **Era berean, erabiltzaile guztiek honako betebeharrak dituzte:**

1. EHMEren eta bere jardueren araudia onartzea eta betetzea.
2. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten gainerako pertsonen eskubideak eta askatasunak errespetatzea.
3. EHMEk ezarritako epean jardueraren prezioa ordaintzea. Ez ordaintzeak jarduerari baja ematea edo etorkizuneko jardueretan ez onartzea ekar dezake.
5. EHMEri jakinaraztea bere jardueren garapen normalari eragin diezaiokeen edozein gorabehera.
6. Kasu bakoitzean erabiltzen diren ondasunak, instalazioak eta materiala errespetatzea eta behar bezala erabiltzea, eta horiek behar ez bezala erabiltzeagatik sortzen diren kalteak konpontzea eta horiei erantzutea.
7. EHMEk antolatzen dituen ekitaldi publikoetan ikus-entzunezko grabazioak egitea onartzea, norberak erabiltzeko eta bere burua antzezteko. Horregatik, erabiltzaileek ez dute inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

## **Araudi erregulatzailea**

EHMEren Estatutuak

EHMEren Barne Erregimeneko Araudia

145/2008 DEKRETUA, uztailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.

## **Kontaktua**

EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA (EHME)

Andres Eliseo de Mañaricua, 3-5.D

48003 Bilbo (BIZKAIA)

605 70 95 30

ehme@ehme.eu